

2018ko MARTXOAREN 1eko OSOKO **BILKURA ARRUNTAREN LABURPENA**

1.- Aurreko bilkurako akta irakurri eta onestea.

2018/02/01eko akta onetsi da.

2. Ultzamako Udal Plan Orokorreko aldaketa puntualaren (egiturazko determinazioak) espedientea, Gorrantz-Olanoko 1. poligonoko 3030 lurzatiari eta Ordenantzaren artikulua aldatzeari buruzkoa, lurzoru urbanizaezinetako erabilera baimengarriei dagokiena garapen eredia zaintzeko lurzoruaren azpikategoriarekin. Behin-behineko onespena.

Alkateak eta idazkariak gaia azaldu dute, eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu dute.

Aho batez onetsi da.

3. Alkatetzak 2018ko otsailaren 8an emandako 15/2018 Ebazpena berrestea, Ultzamako Udalaren Herri-lurraren 631. Mortua mendia 2017an aprobetxatu eta hobetzeko urteko Planari dagokion honako oihan-aprobetxamendua besterentzeari buruz: SOROMEAR aldean dagoen norberak kontsumitzeko biomasa (pagoa) lote bat (113a eta 113c unadak), 974 pago, 666 m3 egur egiten dutenak.

Alkateak gaia azaldu du, eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu du.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Oyarzun zinegotziak hartu du hitza eta denboralea dela eta erori diren pagoak aprobetxatzen ote diren galdetu du, eta EH Bildu Ultzama Udal taldeko Doray zinegotziak baiezkoa erantzun dio, epaitza gisa markatu ahal direnak hartarako markatzen direla.

Aho batez onetsi da.

4. NILSA eta Ultzanueta zerbitzuen Mankomunitatearekin sinatu beharreko hitzarmena onestea, Ultzamako udalerrian Iraizozko Elordi industrialdea lotzeko saneamendu lanak egiteko.

Alkateak gaia azaldu du, eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu du.

Jarraian gaiaren inguruko hainbat kontu tekniko komentatu dira, obren trazadura, kostua, aurreikusitako exekuzio epeak, eta abar.

Aho batez onetsi da.

LEHENA.- Nilsa entitate sozial publikoarekin eta Ultzanuetako zerbitzu mankomunitatearekin hitzarmena onestea.

5. Lankidetzaren erregimena onestea Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazioaren Departamentuarekin eta NASERTIC enpresa publikoarekin, eta Ultzamako Udalarekiko hitzarmen proposamena horretarako onartua, Ultzaman belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboaren obrei dagokienez, Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren kontseilariak 2018ko otsailaren 6an emandako 30/2018 Foru Aginduaren bidez.

Alkateak gaia azaldu du, eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu du.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta komentatu du beraien aldetik ekimena babeste dutela baina informazioa izan duela eta "Banda zabala" baino teknologia aurreratuagoko bat existitzen denaren berri izan duela "5G" deitzen diotena, eta udalen batek Nafarroako Gobernuaren proposamen hau alde batera utzi duela, 2020rako teknologia berri hau egongo dela uste dutelako eta hori dela eta oraingo teknologia honek ez duela merezi.

Martinez Urionabarrenechea alkateak erantzun dio ez dela teknologia mota hauetan oso aditua baina dagoen eskaintza dela, eta Nafarroako Gobernutik diru-laguntza handiarekin datorrela, gaur bertan honen inguruko posta elektronikoa iritsi dela eta NASERTIC-ekin eta kontzejuekin bilera bat eskatu dute obrak nola egin behar dituzten azaltzeko, noraino iritsi behar diren eta abar, eta bilera horretan galdetuko duela teknologia berri horri buruz.

Aho batez onetsi da.

LEHENA.- Entitate honi dagokionez inbertsio lokaleko 2017-2019 planeko inbertsio programan aurreikusitako obrak egiteko borondatea baieztatzea.

BIGARREN.- NASERTIC-ek auzoketako proposamenean azaldutako terminoak onartzea.

HIRUGARREN.- Kargurik gabe toki entitate honenak izan daitezkeen lursailen disponibilitatea onartzeko konpromisoa.

6. BEHIN BETIKO ERABAKIA HARTZEA abeltzaintzako mindan oinarriturik argindarra ekoizteko Iraizozko (Ultzama) 12. poligonoko 159. lurzatiko A azpilurzatian kokaturiko plantaren eta Iraizotz, Gorrontz-Olano, Suarbe, Auza eta Orokietako kontzejuetan dauden minda digerituak biltegitartzeko lau hobiren administrazio kontzesioaren kontratuarekin loturiko aktiboen alegazioei eta balorazioari erantzuteko.

Alkateak eta idazkariak gaia azaldu dute, eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu dute: Udalak hartarako kontratatutako adituak landutako txostenaren ondoren eta berau hasiera batean onetsi ondoren, inplikaturako lauei akordioa, txostena eta eranskinak eman zaizkie, eta alegazio-idazkiak aurkeztu dituzte ez daudelako balioespenarekin ados, baina zentzu ezberdinekin. Behin hauek aztertuta alegazioei erantzun bat emateko eskatu zaio adituari (ikusuntu tekniko-ekonomikotik) eta aldi berean bi txosten juridikoren bidez ere erantzun dira, bat udal idazkaritzatik eta beste bat BIDERKA kabinete juridikotik, hauetan, jasotako alegazioen ezespena ondorioztatzen da eta hasierako balioespenaren berrespena.

Jarraian Argupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta komentatu du gai zerrendaren puntu honen onespeneren aurka daudela ondoren adierazten dituen arrazoiengatik eta hauek izanik:

1.- Ez daude ados alegazioei erantzuten zaien txostenean eta txosten juridikoetan agertzen diren erantzun eta argudioekin. Ulertzen dute, eta argi utzi zuten hasiera batean plantaren aktiboen balioespen txostena onartu zen osoko bilkuran, kasu honetan BIOENERGIA ULTZAMA SA enpresaren aktiboen balioespen eta inbentario bat badagoela konkurtsoaren prozesuan Merkataritzako Auzitegian aurkeztu zena eta azkenik hauek onartu zutena. Aipaturiko txosten hori ez zen udalaren aldetik zalantzan jarri eta onartua izan zen eta beraz irmoa da... orain ez dago beste balioespen bat egiteko arrazoirik, bat egina baitago, benetazkoa eta irmoa dena.

2.- Erabateko desadostasuna adierazi du LACTEOS GOSHUA SL enpresaren nabean dauden hiru motorren kontu guzti hau nola erabili den orain aktiboen balioespena egiterakoan eta adituek alegazioei erantzuteko orduan. Gauzak horrela, ulertzen du hauen balioespen eta salmentaren ondoren balioespen hau intentzio txarrarekin erabili dela orain aktibo guztien balioa oso baxua dela esateko, ondo iruditzen ez zaien kontua. Beraien aldetik, motor hauen desafektazioa eta salmenta egokia zela kontsideratu zuten GOSHUA enpresak alokatutako nabea

hustu nahia bidezko zat hartzen zutelako baina oso gaizki iruditzen zaie gertaera hau aktiboen balioespena egiteko ardura zuen adituarengandik jasotako alegazioei erantzuteko hauen balio-galtzea oso handia izan dela esateko erabili izana.

Azkenik bere Udal taldearen iritzi hauek hartutako akordioarekin batera interesatutako entitateei bidaltzea eskatu du.

EH Bildu Ultzama Udal taldeko Picabea zinegotziak hartu du hitza eta erantzun dio, erantzun txostena, gaian aditua den peritu batek egin duela eta ulertzen du motorren balioespenaren inguruan aipatzen duen guztia testuinguru horretatik kanpo dagoela. Aldi berean Idazkariari galdetu dio ea legearen arabera derrigorrezkoa den interesatutako entitateei Agrupacion Ultzama Udal taldearen iritziak bidaltzea eta honek ezetz erantzun dio, bidali eta jakinarazten dena hartzen den akordioa da zorrozki eta iritzi hauek aktaren parte izango dira, hau ez zaio inori pertsonalki jakinarazten, Nafarroko Gobernuari eta Estatuko Gobernu delegaritzari salbu.

Azkenik aipaturiko Merkataritza epaitegiak onartutako inbentarioaren eta balioespen txostenaren data komentatu eta eztabaidatu da, baita ez protestatu izana, eta amaitzeko Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui berretsi du bere iritzi balioespen hori epaitegiak onartutakoa eta irmoa dela jada.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez denez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.

- Aurkako botoak: Oyarzun eta Perez Arregui. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipaturiko arrazoiengatik.

Aurreko ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

LEHENA.- Lau entitate interesatuek Espedienteari aurkeztutako alegazioak erabat ezestea.

BIGARREN.- Behin betiko aktiboen txostena eta ondoriozko kitapena onartzea, Bioenergia Ultzama SA kontzesio hartzaile enpresaren alde, 298.714,09 euroko emaitzarekin.

Horren ondorioz, Bioenergia Ultzama SA kontzesio entitateak kontzeptu honengatik Ultzamako Udal honi 298.714,09 euro zor dizkiola zehaztea, eta, horren ondorioz, Ultzamako Udalak dagokion garaian, kantitate hau erreklamatu eta kobratzeko dagozkion akordioak hartuko dituela

zehaztea, beti ere kasu honetako araudi aplikagarriaren arabera jokatuz.

7. 2018. urtean eman beharreko etxerako epaitzen zozketa.

Alkate andereak eta idazkariak gaia azaldu dute, eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu dute.

Epaitzen zozketan egin da.
Aho batez onetsi da.
Adjudikazioen zerrenda akta osoan.

8. Alkatetzaren informazioak.

Apirileko osoko bilkura arrunta aste santuko jaien ondoren egitea erabaki da, apirilaren 14an, osteguna.

9. Exekutiboaren kontrola: Aintzat hartzea Alkatetzaren 2018ko 9.ebazpenetik 20.era.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziaren aldetik, honako gai hau komentatu da:

Alkatetzaren 2018ko 14. eta 19. ebazpenei dagokienez, LACTEOS GOSHUA SA enpresan dauden Biogas plantako motorren salmentari eta hauen tresna elektriko laguntzaileen ondorengo dagozkienak.

Ulertzen dute motorrak bakarrik desafektatu zirela, ez tresna elektriko laguntzaileak, eta bere irizpidearen arabera ez daude desafektatuta, beraz, ez da araudi aplikagarria bete eta ez da prozedura egokia jarraitu ezin baita hauen besterengarritasuna deklaratu.

Zehazki komentatu du bere garaian asko kostatu zen (100.000 euro...) transformazio-koadro bat eta teleaginte bat direla eta sistemako funtsezko pieza bat zela. Aldi berean galdetu du ea zer gertatu den GOSHUAren nabean egon beharko liritezkeen baina ez dauden lurrungaldararekin, aerotermoekin eta bero trukatzailleekin. Halako kasuan lapurtu egin direla salatu beharko litzateke, eta kontu hauek egiaztatu harte ez litzateke motorrak erosi dituen enpresaren bermea itzuli behar.

Martinez Urionabarrenechea alkateak erantzun dio ea egiazki aipaturiko aparailuak han zeudela badakiten eta baita orain ez daudela bere kasuan... eta behin termino horiek egiaztatuta salatu beharko litzatekeela bere kasuan. Gaia aztertuko dela adierazi du baita ere,

nabean geratzen dena ikuskatuko da, GOSHUArekin hitz egin eta kontu hauengatik galdetuko zaie.

Kontu honen gainean Idazkariak hartu du hitza azkenik eta nabarmendu du bigarren espedientearen txosten juridiko bat eta bi ziurtagiri daudela, nabarmenduz bere irizpidearen arabera tresna laguntzaile hauek (tresna elektrikoak) hasieratik desafektatu zirela bere "elementu laguntzaile" baldintzagatik eta espedientearen azken helburuagatik: LACTEOS GOSHUA SL enpresaren nabean dauden Biogas plantaren elementu guztiak hustea, berak erreklamatu baitzuen nabearen itzulera berak erabiltzeko. Elementu hauek "elementu ez erabilgarri" kalifikazio juridikoa dute Nafarroako Toki-Administrazioko 6/90 Foru Legearen 102 artikuluaaren arabera, bere hondatzeagatik, balio-galeragatik edo kontserbazio-egoera txarragatik Ultzamako Udalak ematen dituen zerbitzuei edo bere aprobetxamentu arruntari aplikaezinak zaizkio.

10. Eskaerak eta Galderak.

Eskea:

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak adierazi du Ultzamako Biogas plantaren inguruko Parlamentuko batzordearen aurrean alkateak egin zuen agerraldiari eta bera PIENSOS SAIOA SL eta Mikel Altuna Mariezcurrena enpresaren sozinoa zela egin zituen baieztapenen inguruan, hori faltsua dela eta horren inguruko ezezko ziurtagiri bat aurkeztu du non adierazten den horien sozinoa ez dela, inoiz izan ez dela eta inongo parte-hartzerik ez duela izan. Aurpegiratu dio baita ere orduko Agrupacion Ultzama Udal taldeko zinegotzia zen Javier Berasain Gascue Javier Berasain Nuinen lehengusua zela esan zuen baieztapena, egia ez dena. Horregatik guztiagatik baieztapen hau egia ez dela esanez zuzentzeko eskatu dio Alkateari eta zuzenketa ohar bat bidali dadila komisio honen parte diren talde politikoetara, prozedura honetan beraien azkeneko ondorioak egin baino lehen. Amaitzeko esan du informazio hori gezurra dela eta ez bada zuzenketa ohar hori bidaltzen bere aldetik behar diren neurri eta legezko ekintzak hartuko direla.

Martinez Urionabarrenechea alkateak erantzun dio, lehenbiziko lekuan, ez dela egokia eta ez datorrela bat kontu hau udaleko osoko bilkura batean ateratzearekin honekin zerikusia ez duten gauzak tratatzen diren lekua delako eta bere aldetik, batzorde honekin deitu zutenean bertaratuz eta galdetu zitzaionari erantzunez kolaboratu zuela.

Halaber Azpimarratu du jarrera honekin ikertuta sentitzen dela eta hori ez dela posible, bazkide ez izatearen inguruan eta Berasain zinegotziaren inguruan egiazki dioena egia bada bere aldetik ez duela

zalantzan jartzen eta sinesten duela... eta hori dela eta gaia aztertuko duela eta egiazki arrazoia badu bere aldetik ez du arazorik aitortzeko eta behar dena zuzentzeko.

Azkenik, Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak seinalatu du batzordeko bere jokaera errugabetasun-presuntzioarekin bat zetorrela eta lehen esandako guztia berretsi du.